

**PREMIA sailaren zirkularra**  
**ESKOLA 2.0 PROGRAMA**  
**IKASTETXE PUBLIKOAK 2012-13 ikasturtea**

**KARGATZEKO ARMAIRUAK**

**Lehen Hezkuntza:**

Kargatzeko armairu bat gehiago hornituko da, ikasturte honetarako matrikula gehiago izatearren onartu den taldeko.

Momentuz, ez dugu armairurik kenduko talde-kopurua murriztuta ikusi duten ikastetxeetatik.

Armairu batzuk dagoeneko jarrita daude, nahiz eta baten bat falta izan, batez ere Bizkaian. Ekipamendu hori urrian instalatzen amaitzea espero dugu.

**Bigarren Hezkuntza:**

Ikastetxeetako talde gehienetarako behar diren armairuak hornitu dira, beti ere aurrematrikulako datuen arabera, eta egokitzapenen bat egin da instalazio-aldian.

Ikastetxe batzuetan ekipamendu hori falta da; izan ere, matrikulako azken datuak aintzat hartuta, hasieran aurreikusitako baino talde gehiago onartu dira. Ekipamendu hori ahalik eta azkarren hornitzen ahaleginduko gara.

Beste ikastetxe batzuetan, berriz, azkenean onartutako talde baino ekipamendu gehiago hornitu dugu. Horrek esan nahi du instalatzaileek deitu, eta ikastetxetik pasatu behar dutela, instalatutako armairuak kentzeko, gero, ekipamendua behar baina oraindik lortu ez duten beste toki batzuetan jartzeko.

**OHARRAK:**

1. Armairu batzuk termostato lar baxuaz instalatu dira; ondorioz, barrua hozteko haizagailua etengabe dabil, eta zarata desatsegina egiten du, tokian. Konponbidea da termostatoa igo, eta 30-33 gradutan jartzea.



2. Armairuak ondo dabiltzan ikusteko, armairuen goialdeko ezkerrean aurrez aurre dauden koloreetako bonbillei begiratu behar zaie (ikus goiko argazkia).  
Horietakoren batek ez badu argirik, horren berri eman behar da, zeren horrek esan nahi du ez dagoela aktibatuta kargatzeko zirkuitua.
3. Ordenagailu eramangarriak konfiguratzeko direnean, kargatzaileak armairu barruan jarri behar dira, entxufatuta eta kableatuaren ondoan, modu ordenatuan.

## WIFI KONTROLATZAILEAK:

### Lehen Hezkuntza:

Gaurko egunean, Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek dute ekipo hori (hirugarren zikloan ikaslerik izan ez, eta programan sartu ez direnak izan ezik).

### Bigarren Hezkuntza:

Salbuespenak salbuespen, ikastetxerik gehienek dute ekipo hori aktibatuta eta martxan.

- Ikastetxe bik kontrolatzailea falta dute, obretan ibili eta gero sartu baitira programan.
- Ikastetxe bitan, kontrolatzaileari zerbait aldatu behar zaio, lizentzia gehiago onar ditzan; izan ere, tarteko epean aurreikusitako baino talde gehiago dute.

Ekipamendu hori urriaren azkenetarako martxan ibiltzea espero dugu.

## **WIFI ATZITZEKO PUNTUAK:**

### **Lehen Hezkuntza:**

Armairuekin bezala, 5. eta 6. mailan azkenean sortu diren taldeak aztertzen ari gara, ikastetxe bakoitzean benetan sortu diren talde guztiei behar beste atzipen-puntu jartzeko.

### **Bigarren Hezkuntza:**

Ikastetxerik gehienek dagoeneko instalatuta dute ekipamendu hori.

Dena den, salbuespenak daude; izan ere, ikastetxe batzuetan, aldatu egin da talde-kopurua, eta ikastetxe bitan ekipamendu guzti hori hornitu egin da baina oraindik wifi kontrolatzailea falta dute.

Sailak urriaren azkenerako izan nahi du ekipamendu hori guztia instalatuta eta martxan.

Dozena bat ikastetxeetan, arazoak daude jarritako kontrolatzailearekin eta atzitzeko puntu berriekin; izan ere, itxuraz, kontrolatzaileak ez ditu puntuak ezagutzen. Banatzailearekin harremanetan ari gara, arazo tekniko hori ahalik eta bizkorren konpontzeko.

## **ARBEL DIGITALAK:**

### **Lehen Hezkuntza:**

Dagoeneko arbel digital guztiak instalatu dira, matrikulak doitzearren azken orduan aldatu diren taldeetan izan ezik.

### **Bigarren Hezkuntza:**

Arbel digital bat banatu da 1. , 2. eta 3. mailako taldeko.

Azken momentuan onartu direlako sortu diren taldeei arbela jartzeko, aintzat hartuko da zenbat talde sortu diren benetan.

Ikastetxe batzuetan, ez da arbelik jarri, hormak pladurrekoak edo igeltsuzkoak direlako, eta ez direlako seguruak arbelari sendo eusteko. Halakoetan, horren berri eman beharko zaio premia@ej-gv.net-i, metalezko egitura bat jartzeko arbelari eusteko.

## **OHARRAK:**

1. Arbelarekin batera, honako hauek ere hornitzen ditugu: bideo-proiektagailuarentzako lanpara bat, USB kablea, VGA kablea

eta audio-kable bat (minijack konektoreak dituena), bideo-proiektagailuarentzako mandoa eta arbelerako erakuslea.

2. Konexio-kutxa, gehienez ere, arbeletik 5 metrora eraman daiteke. Harago eramanez gero, elkarreragina kontrolatzeko arazoak izan daitezke.

## **ESKOLA 2.0 ORDENAGAILUAK IKASLEENTZAT:**

### **Lehen Hezkuntza:**

Ikastetxeko matrikulak behin betiko itxi eta behin betiko datuak geratzen direnean, ikastetxeak eskatu barik, datuak automatikoki doitu dira, ekipo-kopurua eta 5. eta 6. mailetako ikasle-kopurua bat etortzeko, komunikazio-hizkuntzaren arabera, irakaskuntza-ereduarekin bat etorriz: gaztelania A eredurako eta euskara B eta D ereduatarako.

Mugimendu hori posta elektronikoz jakinaraziko zaie ikastetxeei, eta espero dugu urriaren azkenetarako ikasle guztiek izatea nork bere ekipoa.

Une horretatik aurrera, beste bitan esku hartuko dugu, ikasturtean zehar matrikulak izan ditzakeen gorabehera edo aldaketei erantzuteko. Irailaren 23tik aurrera matrikularik aldatuz gero, horren berri eman beharko zaio ordezkartzako ekipamenduzerbitzuari.

### **OHARRAK:**

1. Minieramangarriak hornitzen direnean, mantentze-enpresari jakinaraziko diogu, domeinuaren barrukoa konfiguratu dezan. Hori konfiguratzeak ez du esan nahi teknikariek kargatzailea armairuan sartu behar dutenik edo kargatzaileak aldatu behar dutenik armairu batetik bestera; lan hori ikastetxeak berak egin behar du.
2. Soberan dauden ekipoak kendu behar direnean, horiek jasotzeaz arduratzen den enpresari eman beharko zaizkio, kargatzaile biek eta zorro eta guzti; horrez gain, ekipoa berdea eta zuria bada, sagua ere eman beharko zaio (berdebeltzek ez daukate sagurik).

## **Bigarren Hezkuntza:**

Matrikula ixten denean, datu zehatzak izango ditugu, ikastetxean azkenean zenbat ekipo behar diren jakiteko, Lehen Hezkuntzan jarraitutako prozeduran bezalaxe.

Datu horiek adieraziko dute zenbat ekipo behar diren gaztelaniaz eta zenbat euskaraz, ikaslee-talde bakoitzaren irakaskuntza-ereduaren arabera.

Prozedura hori automatikoki egingo da, eta ikastetxeak ez du ezer jakinarazi behar. Urriaren erdialderantz posta elektronikoz jakinarazi, eta adieraziko da zenbat ekipo entregatu edo jaso behar diren, benetan sortzen den kopuruaren arabera.

## **OHARRAK:**

1. Ultraeramangarri batek bi kargatzaile (bat, kargatzeko armairuaren barruan jarrita), sagua eta zorroa ditu. Irailaren 10ean hasi ginen ikastetxeetan bigarren kargatzailea, sagua eta zorroa entregatzen, ez ziren-eta hasieran hornitu. Entregatze-lanak amaituta daude.
2. Ikastetxeren baten ekiporik jaso behar bada, horren berri posta elektronikoz jakinaraziko da; ekipoek, berriz, prestatuta egon behar dute: ekipoa, kutxaz eta kargatzailearekin batera, eta bigarren kargatzailea, berriz, saguaz eta zorroaz. Entregatzen diren ekipoen eta horien etiketen zerrenda bat prestatu behar da; bertan, kodea eta erreferentziazko ikastetxea adierazi behar dira.
3. Ikastetxeetan ekipo gehiago entregatu behar bada, kutxa bat jasoko dute ultraeramangarriaz, bi kargatzaileez, saguaz eta zorroaz. Ikastetxeak ez du horren berri eman behar, baina zaindu egin behar ditu, harik eta teknikari instalatzaileak ikastetxera joan arte kargatzailea armairuan sartzera eta ultraeramangarria ikastetxeko sarean sartzera.